

BIZIKIDETZA:

OINARRI BATERATUAK



2014-2015

Dokumentu honen bidez, bizikidetzari lotutako oinarriak bateratu nahi izan ditugu Talaia Institutuan. Horretarako, 2008ko abenduaren 16ko EHAA n argitaratutako 201/2008 dekretuan oinarritu gara, bai eta ikastetxearen barne funtzionamendurako arautegian ere.

BIZIKIDETZA BERMATZEKO IKASLEENTZAKO ARAUAK

Jarrera eta jokabidea

- Errespetua zor diegu gure ikaskide, irakasle eta institutuko gainerako langileei; oro har, gizarte osoari.
- Gure arteko harremanak gizalegean eta jokabide zintzoan oinarritzen dira: oihukatu gabe hitz egingo dugu, kidearen beharrei arreta jarriko diegu, hitz egiteari adina garrantzia emango diogu entzuteari, eskatu behar dugunean mesedez eskatuko dugu, zerbait jasotzen dugunean edo ematen digutenean eskertu egingo dugu...
- Erabat saihestuko ditugu: eraso fisikoak, kideak baztertzea, gezur-asmakeriak, laidoak; eta sinesmen, pentsaera, sexu edo izaeraren aitzakiapean egindako irainak.
- Geure buruari eta besteei errespetua behar diegunez, beti gorputz eta janzkera garbitasun pertsonala mantenduko dugu. Bestaldetik ere, leku estalietan ez ditugu aurpegia edo burua tapatzen dituzten janzkiak erabiltzen (txanoak, zapiak, eguzkitarako betaurrekoak...).

Lana

- Institutuan, nahitaez jo behar dugu ondo lan egitera. Hori lortzeko, ezinbestekoa da norberaren jarrera egokia, bai gela barruan, bai pasilloetan.
- Gelako lan giro aproposa izatea oso garrantzitsua da. Horretarako, arreta berezia eskainiko diegu lan tresnei –gai bakoitzari doakion tresneria prest edukiko dugu beti, aurrez egin beharrekoak eginak izango ditugu...– eta gure jarrerari: gorputza eta burua erne, entzutean arretatsu eta hitz egitean zentzudun ibiliko gara.
- Eskola saioak aprobetxatzea edonoren eskubidea da; beraz, inork ez du eskubiderik eskola saioak eteteko edo nahasteko. Eskola saioetan leku batetik bestera goazenean, kideak lanean ari direnez, isiltasun osoz mugituko gara.

Ingurunea

- Institutua txukun eta garbi egoteak atseginagoa egiten du bertako egonaldia. Asko garenez, garbitasunari eta ordenari ere arreta berezia eskainiko diegu.
- Sortzen dugun zaborra zakarrontzietan botako dugu, eta ez lurrera. Lurrean topatzen dugun zabor edo hondakinarekin zuzen jokatu dugu: ez ikusia egin beharrean, makurtu, jaso eta dagokion ontzian utziko dugu; hau da, zakarrontziak erabiliko ditugu.
- Komunak era egokian erabiliko ditugu, eta beharrezkoa denean bakarrik. Eskuila, papera, harraska eta gainerako elementuak arduraz erabiliko ditugu komunak uneoro garbi egon daitezen.
- Egunero, azken saioa amaitutakoan, beren lana errazteko moduan utziko diegu gela garbitzaileei; hau da, gauza guztiak dagozkien lekuetan utziko ditugu, eta, behar izanez gero, ikasle bakoitzak mahai gainean jarriko du bere aulkia.
- Ikasleek ikastetxeko instalazioak eta material didaktikoa zaintzeko eta egoki erabiltzeko betebeharra dute. Ikastetxeko ekipamendua, beraz, ezarritako helburuetarako bakarrik erabiliko dute, dagokion ordutegian; hortik aparte, ez dute baimenik erabiltzeko.
- Zerbait puskatu edo hondatzen bada, lehenbailehen emango dugu gertaeraren berri.
- Era desegokian erabiltzearen ondorioa bada, geure dirutik ordainduko dugu puskatutako edo hondatutako horren konponketa.
- Hezkuntza komunitateko gainerako kideen gauzak ere errespetatu behar ditugu; ez ditugu besteen gauzak hondatuko eta are gutxiago lapurtuko.
- Gure erantzukizuna da ikastetxeko kideen gauzetan eragindako kalteak konpontzea edo ordaintzea.

Joan-etorriak

- Egon behar dugun lekuan egongo gara, aldi oro.
- Gure lekuan ordu-orduan egotea guztion eginkizuna da.
- Noizbait berandu iristen bagara:
 - a) Atea jo eta sartzerik dagoen galdetuko dugu.

- b) Irakasleari, errespetu handiz, azalduko diogu zergatik atzeratu garen, eta saioa ahalik eta gutxien oztopatuz sartuko gara taldean.
- Irakaslea bera atzeratzen bada, gela barruan itxarongo dugu solas lasai batean, eta gela arduraduna zaintzako irakasle baten bila joango da.
 - Irakasleak kanporatzea erabakitzen badu, ikaslea zaintza gelara abiatuko da zeregin bat eskuetan duela. Inolako eztabaidarik gabe errespetatuko da irakaslearen erabaki hori: zergatiak eskatzea edo tirabirak sortzea beste baterako utziko dira beti. Irakasleak zerbait adierazi nahi badu edo gertaera argitu (edo argitzea) nahi badu, zaintza gelan horretarako propio dagoen orria bete dezake.
 - Ikasgai batzuetan taldeak desegin eta bestela antolatu behar direnez, gerta daiteke norberarena ez den gelan edo mahaian egon behar izatea. Hala denean, eta nahiz eta beharra izan, ez da kidearen ezer ukituko.
 - Pasilloak, atsedenditik kanpo, pasabideak besterik ez dira; beraz, ez gara bidean geldituko eta bizkor joango gara egon behar dugun tokira.
 - Beste gela batera joan beharrik ez dagoenean, ez gara gelatik irtengo; eta behar izanez gero, baimena jaso ondoren bakarrik irtengo gara.
 - Eskola orduetan komunitate joateko, irakaslearen baimena beharko da.
 - Lanean hasterakoan behar duguna eskura ez badugu, ez gara abiatuko bat-batean eta besterik pentsatu gabe behar dugunaren bila; are gutxiago gelatik irten eta beste talde baten lana eteten badugu.

Bertaratze hutsegiteak

- Salbuespen bereziak izan ezik, Institutuan egon behar dugu eskola egun guztietan: ezinbestekoa da Ordezkaritza Organo Gorenak onartu duen ikasturteko egutegia betetzea.
- Irakasleak, eskola saio bakoitzean, jakin behar du zein ikasle ez den etorri.
- Baimenik gabe ezin da inola ere Institututik irten; irteteko, egiaztagiri idatzia ekarri behar da. Saio bakarrean ere huts egiten badu, idatzizko justifikazioa ekarri behar du irakasleak.
- Azterketa edo kontroletara etortzerik ez badago, ezinbestekoa da lehen orduan dei egitea.

Institututik at

- Institutuak egun bateko kanpo jardueraren bat antolatzen badu, nahitaezkoa da joatea.
- Eskola saioen parekoak direnez, modu berean justifikatu behar dira hutsegiteak.
- Egun bateko baino gehiagoko irtenaldiak, berriz, ez dira derrigorrezkoak. Ez da justifikatu behar ez joatea, baina derrigorrezkoa da abisua ematea.
- Gure arteko harremanak gizalegian eta jokabide zintzoan oinarritzen dira, gorago esan bezala; zer esanik ez, kanpoko jardueretara goazenean. Eskaintza gure onerako izango delakoan egiten digutenez, errespetuz jasoko dugu; zerbaitekin ados ez bagaude, pertsona hezien legez adieraziko dugu hori. Irteerak, askotan, balio berezia duten lekuetara egiten dira; horregatik, modu txukun eta egokian zainduko dugu bertan dagoena.

Beste zenbait

- Institutu honek, elkarbizitzarako eta ikasteko gunea denez, ezin ditu onartu zenbait ohitura eta joera.
- Lan tresna eta gurasoekin komunikatzeko bidea da agenda; beraz, ez dugu inoiz erabiliko gure gauza pertsonalak idazteko. Irakasleek edonoiz eska dezakete agenda zerbait idazteko edota kontrolatzeko.
- Ezin da erre edo legez kanpoko sustantziarik hartu.
- Botikaren bat hartu behar baldin bada edo une jakin batean irakasleak ikasle baten egoera bereziaz arduratu behar badu, gurasoek idatzi baten bidez adieraziko diote ikastetxeari zer-nolako protokoloa bete.
- Institutuan ezin da botikarik eman; beraz, behar duenak berak ekarri beharko du.
- Lan saioetan, institutuan bertan edo irteeretan (antzerkiak, museoak, hitzaldiak...), ez da inolako litxarreriarik (ezta txiklerik ere) edo antzekorik hartuko edo kontsumituko.
- Debekatuta dago tresna elektronikoak (MP3, mugikorrak, PSP, *play* jolasak eta antzekoak) erabiltzea. Salbuespen gisa, irakasle batek hala eskatuta, lan bat

egiteko erabili ahal izango dira (betiere, irakasle horren aurrean). Irteeretan ere debekatuta daude.

- Telefonoz dei egitea behar-beharrezkoa bada, idazkaritzan dagoen telefonoa erabil daiteke, betiere baimena lortu ondoren.
- Autoz datozen ikasleek ikastetxetik kanpo aparkatuko dute.
- Ikastetxera bizikletaz etorriz gero, goiko edo atzeko langatik sartuko gara.
- Bizikletak eta motoak horretarako prestaturik dauden tokietan aparkatu beharko dira. Nahikoa tokirik ez badago, bizikletek lehentasuna izango dute, eta motoak Institututik kanpo aparkatu beharko dira. Motoak ez dira, inolaz ere, kotxeen aparkalekuetan utziko.
- Abiadura egokia errespetatuko da.
- Kanpoko ikasleak ezin izango dira ikastetxean sartu baimenik gabe.

Jangela

- Ikusi “**Jangelako arautegia**” atala. Horretaz gain, jangelan –eta bazkaldu ondorengo atsedendietan– gertatzen diren arau haustek ikastetxeko arautegi orokorrarekin kudeatuko dira.

Jolasaldia

- Ikusi “**Jolasaldiko arautegia**” atala. Horretaz gain, jolasaldian gertatzen diren arau haustek ikastetxeko arautegi orokorrarekin kudeatuko dira.

ZENBAIT JOKABIDEREN ZUZENKETA

Larritasunaren arabera, lau jokabide bereiz ditzakegu:

0. Zuzentzeko jokabideak (Ohartarazpena baino ez dakartenak)
1. Jokabide desegokiak (Hutsegite arinak)
2. Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideak (Hutsegite larriak)
3. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak (Hutsegite oso larriak)

0. Zuzentzeko jokabideak (Ohartarazpena baino ez dakartenak)

Noiz

- Klasean lanik ez egitea, lan giroa oztopatzea, materialik ez ekartzea, hitz egitean txanda ez errespetatzea...
- Errespetu falta arinak (kideekin, irakasleekin edo materialekin): jarrera desegokiak, gaizki eserita egotea, txikleia jatea, zikinkeriak botatzea, buila egitea...
- Egon behar ez den nonbait egotea (pasilloak, komunak...), gorputza leihora ateratzea...
- Ikastetxera drogak hartuta etortzea*.

Nork

- Dagokion irakaslea, jangelako langileak edo ikastetxeko beste langileak.

Nola jokatu

- Ikaslearekin:
 - Gertaeraren gainean hausnarrarazi.
 - Behar izanez gero, neurri zuzentzailearen bat aplikatu.
- Informazioa nola zabaldu:
 - Informazio orokorra Inika programan sartu (berandu heltzeak, lanari dagozkionak, jarrerari dagozkionak, jokaeraren deskribapena...), gurasoentzat eta tutorearentzat.

* Ikusi "Kasu berezi bat" atala.

- Ez da parterik bidaliko.
 - Beharrezkoa izanez gero:
 - Inikaren bidez mezu pertsonalizatu bat idatzi (familientzat).
 - Agendaren bidez familiei mezu bat bidali.
 - Familiei telefonoz hots egin.
- **Kasu berezi bat**
- Susmoa badugu ikasle bat drogak hartuta etorri dela institutura:
 - Ezin da hutsegitezat jo; beraz, ez zaio partea bidaliko ikasleari. Hala ere, Inikan apuntatuko da gertaera.
 - Familiei deituko zaie ikaslea egoera egokian ez dagoela esan eta bila etortzeko eskatzeko.

1. Jokabide desegokiak (Hutsegite arinak)

Noiz

- “Zuzentzeko jokabide” horietako bat errepikatzea (edo batzuk pilatzea, desberdinak). Edozein modutan, sen onak diosku jokabidea noiz den desegokia.
- Klasera berandu iristea* (irakaslearen ondoren sartzea).
- Kide, irakasle edo materialekiko errespetu eza adierazten duten jokabide arinak agertzea.
- Ikastetxeko eremuetan erretzea*.
- Debekatuta dauden tresnak erabiltzea (telefonoa, esaterako)*.
- Azterketetan kopiatzea edo txuletak erabiltzea.
- Institututik justifikatu gabe edo baimenik gabe alde egitea (sasieskola edo piper egitea)*.
- Kideen edo ikastetxeko gauzak edo tresnak baimenik gabe edo behar ez bezala erabiltzea, puskatzea, galtzea edo lapurtzea.
- Irakasleak agindutakoa ez betetzea*.
- Baimenik ez dutenei ikastetxean sartzea erraztea.

* Ikusi “Kasu berezi batzuk” atala.

Nork

- Dagokion irakaslea.
- Eskolako bestelako edozein langile, zuzendaritzaren bitartez.
- Jangelako begiraleak, jangelako arduradunaren bitartez.

Nola jokatu

- Ikaslearekin:
 - Gertaeraren gainean hausnarrarazi.
 - Informazioa Inikan sartu.
 - Familiei parte idatzi bat bidali.
 - Behar izanez gero, neurri zuzentzailearen bat aplikatu.
- Informazioa nola zabaldu:
 - Hutsegite arin guztiak parte idatzi baten bidez komunikatuko zaizkie familiei.
 - Parteak Inikaren bidez idatziko dira, eta paperezko ale bat emango zaio ikasleari gurasoek sinatuta ekar dezaten.
 - Partea sinatuta ekartzen ez badu, telefonoz hots egingo zaio familiari.

Kanporaketak gertatzen direnean

- Ikasleak liburutegira joan beharko du. Irakasleak lana ezarriko dio kanporatutako ikasleari.
- Ikasleak eskubidea izango du gertatutakoaren bere bertsioa eta gogoetak idazteko. Idazkia zaintzako irakasleari eman, eta hark tutoreari emango dio.
- Irakasleak Inikan sartu beharko du informazioa, eta parte idatziko dio ikasleari; behin gurasoek sinatuta, irakasleari ekarri beharko dio parte.
- Partea segituan idazteko aukera ez balego, geroago edo hurrengo egunean bidal liteke.

Kasu berezi batzuk

- Gelan berandu sartzea (irakaslearen ondoren sartzea)
 - Berandu iristen bada, irakasleak zaintza gelara bidaliko du ikaslea, lanarekin betiere.

- Hola erabakitzen badu, irakasleak berriz sartzeko aukera eman diezaioke ikasleari. Dena dela, beti ezarriko dio atzerapen falta Inikan.
- Erretzea
 - Erretzen harrapatuz gero, zigarroa itzali eta botarazi, eta parte idatzia egingo zaio ikasleari.
- Debekatuta dauden tresnak erabiltzea (telefonoa, esaterako)
 - Tresna kendu egingo zaio ikasleari, eta ikasketaburuak gordeko du:
 - Hurrengo egunean bueltatuko dio, gurasoek sinatutako partea ekartzen badu.
 - Hirugarren aldia bada, hutsegite larritzat hartuko da.
- Institututik justifikatu gabe irten edo alde egitea (piper egitea)
 - Irakasleak edo tutoreak etxera deituko du ez etortzea justifikatuta dagoen edo ez ziurtatzeko. Etxean inor egon ezean, SMS bidez abisatuko zaie gurasoei (SMSak zuzendaritza taldekoek bidal ditzakete).
 - Neurri zuzentzaile moduan: Justifikatu gabeko ez etortze bakoitzagatik, ikasleak jolasaldi bat pasatu beharko du liburutegian lanak egiten.

2. Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidea (Hutsegite larriak)

Noiz

- “Jokabide desegoki” horietako bat errepikatzea (edo batzuk pilatzea, desberdinak). Edozein modutan, sen onak diosku jokabidea noiz den bizikidetzaren aurkakoa.
- Kide, irakasle edo materialekiko errespetu eza adierazten duten jokabide larriak agertzea.

- Ikastetxean drogak kontsumitzea.
- Eraso fisikoa egitea, borrokatzea edo iraintzea.
- Azterketa ereduak lapurtzea.
- Edozein dokumentu, nota, akta eta abar aldatzea.
- Neurri zuzentzaileak behar bezala ez betetzea.
- Irakasleak agindutakoa ez betetzea, mespretxu eta irainak tarteko.
- Norberaren irudirako eskubidea ez errespetatzea.
- Norbaiti zerbait eginaraztea bere borondatearen aurka.

Nork

- Dagokion irakaslea, edo eskolako bestelako edozein langile, zuzendaritza taldearekin eta orientatzailearekin batera.

Nola jokatu

- Ikaslearekin:
 - Gertaeraren gainean hausnarrarazi.
 - Familiei hutsegite larriko parte bidali, zuzendaritzak sinatua.
 - Behar izanez gero, zuzendaritza taldeak neurri zuzentzailearen bat aplikatu*.
- Informazioa nola zabaldu:
 - Hutsegite larri guztiak zuzendaritzaren parte idatzi baten bidez komunikatuko zaizkie familiei.
 - Dagokion irakasleak zuzendaritzari azalduko dio gertatutakoa, eta parte bat idatziko du Inikan zuzendaritzarekin batera. Paperezko ale bat emango zaio ikasleari gurasoak sinatuta ekar dezaten.
 - Bilera bat egingo da familiarekin, partaideak aurrez aurre daudela.

* Ikusi "Neurri zuzentzaileak" atala.

3. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak (Hutsegite oso larriak)

Noiz

- “Bizikidetzaren aurkako jokabide” horietako bat errepikatzea (edo batzuk pilatzea, desberdinak). Edozein modutan, sen onak diosku jokabideak noiz eragiten dion kalte larria bizikidetzari.
- Zuzendaritzak ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea.
- Hezkuntza komunitateko kideen aurkako irainak botatzea; bereziki, diskriminazioa dakartenak (arraza, sexua, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa... dela eta).
- Eraso fisiko larriak egitea.
- Osasunerako oso kaltegarriak diren jokaeretara bultzatzea (tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea); salerosketan ibiltzea.
- Liskar edo jokabide erasokorrak sorraraztea, lesioak eragiteko arrisku larria badakarte.
- Bandalismo ekintzetan parte hartzea.
- Grabazio baliabideak erabiliz norberaren irudirako eskubidea ez errespetatzea.
- Ikastetxeko egintzetan beste edonoren izena erabilia aritzea.
- Eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea.
- Delitu edo hutsegite penala den edozer egitea.

Nork

- Dagokion irakaslea edo eskolako bestelako edozein langile, zuzendaritza taldearekin eta orientatzailearekin batera.

Nola jokatu

- Ikaslearekin:
 - Gertaeraren gainean hausnarrarazi.
 - Familiei hutsegite oso larriko partea bidali, zuzendaritzak sinatua.

- Behar izanez gero, zuzendaritza taldeak neurri zuzentzailearen bat aplikatu*.
- Informazioa nola zabaldu:
 - Hutsegite oso larri guztiak zuzendaritzaren parte idatzi baten bidez komunikatuko zaizkie familiei.
 - Dagokion irakasleak zuzendaritzari azalduko dio gertatutakoa, eta parte bat idatziko du Inikan zuzendaritzarekin batera. Paperezko ale bat emango zaio ikasleari gurasoak sinatuta ekar dezaten.
 - Bilera bat egingo da familiarekin, partaideak aurrez aurre daudela.

* Ikusi “Neurri zuzentzaileak” atala.

NEURRI ZUZENTZAILEAK

Atal honetan, ikastetxeak erabil ditzakeen neurri zuzentzaileen zerrenda ageri da, arinetatik gogorrenetara mailakatuta.

- Gertaeraren gainean hausnarraraztea (ahoz edo idatziz).
- Gelako jarlekua aldatzea, txoko batera eramatea lasaitu dadin, edo gelatik lasaitu arte ateratzea...
- Lan edo jarrera kontratuak adostea.
- Ikaslea gelatik kanporatzea*.
- Lan hezigarriak eginaraztea:
 - Gela txukuntzea, mahaiak garbitzea...
 - Patioa, paretak... garbitzea.
 - Eragindako kalte materialak konpontzeko lanak egitea.
 - ...

- Liburutegira bidaltzea, lanarekin, zenbait jolasalditan.
- Liburutegira bidaltzea, lanarekin, zenbait asteazken arratsaldetan.
- Eragindako kalte materialak ordainaraztea.

- Eskolaz kanpoko zenbait jardueratan (txangoak, irteerak...) parte hartzeko eskubidea kentzea.
- Eskolako zerbitzuez (jangela, garraioa..) baliatzeko eskubidea etetea.
- Ikasgai batera edo gehiagotara joateko eskubidea etetea.
- Beste talde edo gela batera aldatzea.
- Beste ikastetxe batera aldatzea.

Edozein modutan, kasu bereziren batean, bestelako neurri zuzentzailearen bat aplikatzea erabaki lezake irakasle taldeak edo zuzendaritza taldeak.

* Ikusi gorago “Jokabide desegokiak (Hutsegite arinak)” ataleko ‘Kanporaketak gertatzen direnean’ puntua.

JANGELA ORDUA

ARAUTEGIA

1. Bazkalorduan (jangelan) ere errespetatuko da Institutuko Elkarbizitzarako Araudia.
2. Goizeko klaseak bukatutakoan (12:10ean), lehenengo eta bigarren mailako ikasleak jangelara jaitsiko dira, ordenan. Hirugarren eta laugarren mailakoak patiora irtengo dira zuzenean; bertan, bi zaintzaile egongo dira haiekin. Poliki, garrasirik egin gabe, lasai eta presarik gabe joango dira denak.
Lehenengo eta bigarren mailakoek bazkaltzen bukatu, eta patiora irtengo dira; eta gainerakoak, bigarren txandakoak, jangelan sartuko dira (13:00etan).
3. Behin jangelan sartuta, ikasleek jarrera egokia agertuko dute:
 - o Ahotsaren tonua kontrolatuta.
 - o Jangelan lasai ibilita.
 - o Bertako tresnak errespetatuta, haiekin jolastu gabe.
 - o Lurra eta mahaia garbia mantenduta, zikinkeriarik bota gabe.
 - o Begiraleak errespetatuta eta haiek esandako eremuetan ibilita, ikasgeletara igo gabe.
4. Jangelatik ezin da janaririk atera, ez frutarik, ez ogirik... (begiralearen baimenarekin ez bada).
5. Bukatutakoan, ikasle bakoitzak bere azpila eta bazkal tresnak jasoko ditu, jangelako arduradunak adierazitako ordena jarraituz.
6. Zakarra ongi bereizi behar da: bazkariaren hondarrak, zakarrontzi batean; eta paperak, jogurt poteak..., beste batean.
7. Bazkaltzen geratzen diren ikasleak, goizeko eskola saioak amaitu eta arratsaldekoak hasi bitartean, jangelako zaintzaileen ardurapean egongo dira.
8. Ezin izango dira instalazioetatik irten, baldin eta zaintzaileek baimena ematen ez badiete edo etxekeon baimenik ez badaukate –aurrez jakinarazi behar dute, idatziz–. Bazkaldu aurretik eta ondoren, zaintzaileek finkaturiko eremuetan ibiliko dira ikasleak (ikus “Jangela orduko eremu baimendua” gehigarria), ikasgeletara joan gabe. Euri edo hotz handiko egunetan, gimnasioaren gaineko estalpea irekiko zaie. Liburutegian irakasle bat egonez gero aukera egongo da hau erabiltzeko.

9. Zaintzaileek, kontu bereziren bat gertatuz gero, jangelako arduradunari aipatuko diote. Bere eguneroko koadernoan apuntatuko du arduradunak, eta, kasua aztertu ondoren, baliteke neurriren bat hartu beharko litzatekeela erabakitzea.
10. Jardunbide arrunta aldarazten duen edozein alderdi aurretiaz jakinaraziko dio ikasleak jangelaren arduradunari: ordainketaren bat atzeratzea, ikastetxetik irten behar izatea, menu berezia behar izatea (mediku espezialistaren agiririk gabe ez da menuan inongo aldaketarik onartuko), botikak hartu beharra...
11. Arau hauek beteko ez balitu, ikasleari jangelatik baja emateko aukera izango du ikastetxeak. Hori gertatu baino lehen, ikaslearekin hitz egingo da, arazoa konpontzeko asmotan, eta etxera abisatuko da.

HUTSEGITEAK

Lau hutsegite mota bereiziko dira: ohartarazpena baino ez dakartenak, hutsegite arinak, larriak eta oso larriak.

Ohartarazpena baino ez dakartenak

Jangelako zerbitzua normaltasunez eta modu egokian funtzionatu dezan eragozten duten zuzentzeko edozein jokabideak dira, baldin eta larritasun maila arina, larria edo oso larria ez bada.

Hutsegite arinak

1. Jangelako materiala (edalontziak, koilarak eta beste tresnak) ongi ez erabiltzeagatik hondatzea.
2. Mahaiari kolpeak ematea.
3. Janaria era desegokian erabiltzea: lurrera edo mahai gainera nahita botatzea, urarekin jolasean ibiltzea, ogia elkarri botatzea...
4. Jangelako jardun normala nolabait oztopatzea: sartzeko edo irteteko txanda ez errespetatzea, arduradunaren baimenik gabe mahaitik altxatzea, ilaran bultzaka ibiltzea...
5. Mahaikideen tresnak nahita zikintzea.
6. Jangelan jarrera desegokia agertzea: garrasi egin, irainka ibili...
7. Jangelatik janariak ateratzea.

Hutsegite larriak

1. Jangelako kideak –ikaskideak, sukaldariak, begiralea edo jangela arduraduna–, larri iraintzea edo mehatxatzea.
2. Edozein kide jotzea edo beste batek norbait jo dezan eragitea.
3. Jangelako materiala larri hondatzea, edo gaizki erabiltzeagatik egoera larria sortzea.
4. Besteen gauzak lapurtzea: janaria, eskola materiala, telefonoak edo dirua.
5. Jangelaren arduradunaren, sukaldarien edo begiraleen aginduak ez betetzea.
6. Eskola-barrutitik baimenik gabe irtetea.
7. Jolastokian besteek ere jolas egin dezaten eragozteak.
8. Hutsegite arinak metatzea (3).

Hutsegite oso larriak


1. Institutuko arautegi orokorrean oso larritzat hartzen diren hutsegiteak.
2. Aldez aurretik prestatutako edota talde batek burututako hutsegite larria.
3. Hutsegite larriak metatzea (3).

NEURRIAK

1. Ohartarazpen kasuetan, jokabidearen gainean hausnarraraziko zaio ikasleari. Eta ohartaraziko zaio jokabide horrekin jarraitzeak zer ondorio ekar lekiokkeen.
2. Hondatutako materiala, kasu guztietan, hondatu dutenek ordaindu beharko dute, edo konpondu edo berria ekarri.
3. Hutsegitea arina denean, arduradunak hutsegite arineko parte bat idatziko du. Parte honetan, gogoraraziko zaie familiei jangela zerbitzua ez dela derrigorrezkoa. Hurrengo egunean, ikasleak bueltan ekarri beharko du parte, gurasoek sinatua.
4. Parte sinatuta ez badakar, zuzendaritzak ikaslearen etxera deituko du, eta familiari jakinarazi jangela zerbitzua eten egingo zaiola parte sinatuta ekarri arte. Horretaz gain, behar izanez gero, bestelako neurri zuzentzaileraren bat aplikatu ahal izango da.

5. Hutsegitea larria denean, jangelako arduradunak Zuzendaritzari emango dio hutsegitearen berri. Zuzendaritzak –ikasleari eta gurasoei jakinarazi ondoren– erabakiko du, hutsegitearen larritasunaren arabera, ikasle hori bi edo bost egunez jangela zerbitzurik gabe uztea.
6. Hutsegitea oso larria denean, Institutuko Elkarbizitza Batzordeari jakinaraziko zaio. Batzordeak, ikaslearekin eta gurasoekin hitz egin ondoren, ikaslea ikasturte amaiera arte jangela zerbitzurik gabe uztea erabaki lezake.

JANGELA ORDUKO EREMU BAIMENDUA



JOLASALDIKO ARAUTEGIA

- Atsedenaldea edo jolasaldea, eskola jardunaren etena denez, solas eta jolas egiteko erabiliko dugu.
- Indartsu eta sasoitsu egon arren, ez dugu geure burua eta besteena arriskuan jarriko jolas desegokiekin.
- Jolasaldiko orduetan, DBHko ikasleek baimendutako eremuetan egon beharko dute (Ikusi “Jolasaldiko eremu baimendua” gehigarria):
- Ez dira erabiliko atsedeneku edo egonleku moduan –errepide eta pasabide baitira– aparkalekua, beheko atletik eraikin pareraino doan errepidea, atezainaren etxearen atzealdeko bidea eta goiko atletik biltegira doana.
- Jolasaldiko orduetan, gimnasio berriko komunak soilik erabili ahal izango dira. Komunak ez dira bertan egoteko: erabili, eta kanpora!
- Ikasleek aukera izango dute kirol materiala maileguan eskatzeko, jolasaldirako; horretarako, fitxa bat bete behar dute. Materiala itzultzea hartu duenaren ardura izango da.
- Eguraldi kaxkarreko egunetan, gimnasio zaharreko harmailtako egongela irekiko da ikasleek aukera izan dezaten jokoan ibiltzeko (kartetan, partxisean...) edo solasean jarduteko.
- Jolasaldiko orduan, liburutegia zabalik egongo da ikasleek nahi izanez gero erabili dezaten, betiere liburutegietako giroan (isilik, lasai...).
- Gimnasioan, antolatutako jardueretan (pilota, badmintona...) parte hartzen duten ikasleak soilik egon daitezke (ikuslerik ez). Gimnasioan, ezin da jan ezta edan ere.
- Jolasaldian, eraikinen barruan ezin da egon. Horrez gain, beste hauek ere toki debekatuak dira:
 - institutuaren sarrerako eskailerak
 - aparkalekua
 - gimnasioaren atzeko aldea
 - “pixalekua”
 - bedelaren etxearen atzeko aldea eta aparkalekua
 - ikastetxeko mendialdea
 - Eraikin berriko eskaileren goialdea, berriz, eremu baimendua da.

- Batxilergoko ikasleek aukera izango dute ikastetxetik irteteko, baldin eta ikasturte hasieran gurasoen baimen idatzia ekartzen badute. Ikasleek ikastetxetik kanpo jarrera desegokia izanez gero, bertan behera geldituko da irteteko baimen hori.
- Jolasaldian sortzen diren gatazkak eta arazoak jolasaldiko edozein irakasle arduradunekin edo koordinatzailearekin konpondu behar dira.

JOLASALDIKO EREMU BAIMENDUA

